



FORTUNA
kirol elkarte
club deportivo



Paseo Berriko 52. Igerialdia

ANTOLATZAILEA

C.D. FORTUNA K.E. eta Gipuzkoako Igeriketa Federazioa

BABESLEAK

Donostia Kultura Festak

TOKIA:

Donostia-San Sebastián

DATA

2022ko abuztuaren 15ean

ORDUTEGIAK ETA IBILBIDEAK

Dorsal eta Txipen banaketa Kontxako hondartzan egunean bertan egingo da **9:00**etatik **11:15**etara izango da, erlojuen ondoan. Parte-hartzaile absolutoak, Zurriola hondartzara autobusez eramango ditugu 10:30tatik 11:20ra bitartean (mapa ikusi). **Autobusa hartzeko garazi ibili, mesedez.**

- **INFANTIL KATEGORIA:** Goizeko 11:00etan Nautikotik aterako dira eta helmuga Kontxako hondartzan izango da. Ibilbideak 650 metrotako distantzia du.
- **PASEO BERRIKO IGERIALDIA**, 4 irteera egongo dira:
 - **12:00:** Paseo Berriko zeharkaldian **45:00** minutu baino gutxiago ziurtatzen dutenak (azken 3 urteetan*)
 - **12:03:** Paseo Berriko zeharkaldian **45:00** minutu baino gehiago eta **50:00** minutu baino gutxiago ziurtatzen dutenak (azken 3 urteetan*).
 - **12:06:** Paseo Berriko zeharkaldian **50:00** minutu baino gehiago eta **55:00** minutu baino gutxiago ziurtatzen dutenak (azken 3 urteetan*).



FORTUNA
kirol elkarte
club deportivo

- **12:09:** Paseo Berriko zeharkaldian **55:00** minutu baino gehiago ziurtatzen dutenak (azken 3 urteetan*).
**Azken hiru urteetan parte hartu ez baduzu, 3.000 metroko igeriladi batean egindako denboraren ziurtagiria igeriketa@cdfortunake.com posta helbidera bidali behar duzu.*
Irteera Zurriolako hondartzatik izango da eta helmuga berriz, Kontxako hondartzan. Ibilbideak 2959 metrotako distantzia du.
Ibilbidean zehar, ahoz behera daudela, partaideek ezkerrean utziko dituzte buiak.

Gogoratu debekatua dagoela edozein motatako ERLOJUREKIN igeri egitea.

Antolatzaileak banatutako txanoa partehartzeko beharrezkoa da.

Sailkapenaren eta denboren ofizialtasuna, Gipuzkoako Igeriketa Federazioko epaileek bermatuko dute.

Oharra: ezinbesteko arrazoiengatik, ordutegiak eta ibilbideak aldaketa jasan dezakete. Ibilbidean kasuan B plana aktibatuko da (ikusi mapa).

IZEN-EMATEA:

Izen-ematea 2022ko ekainaren 10ean eguerdiko 12:00etan irekiko da, azken eguna 2022ko abuztuaren 12an eguerdiko 14:00etan izango delarik.

Izen-ematea hemen: <https://www.cdfortunake.com/eu/probak/paseo-berriko-igerialdia>

Prezioak;

- Infantilak: 18,00€.
- Absolutoak: 26,00€.

Izen ematea, absolutoetan 650 parte hartzailera mugatuko da eta infantiletan 150 parte hartzailera, antolakuntza taldeak beharrezko ikusten duen dortsal kopurua gordetzeko eskumena izango duelarik.

- *Bueletaketa:* lesio edota pisuzko arrazoiengatik, 6,00€ko atxikipena ezarriko da. Medikuen ziurtagiria aurkeztuta, izenemate osoa bueltatuko da. Eskerak, posta elektronikoki bidez (igeriketa@cdfortunake.com), igerialdia ospatu aurretik soilik onartuko dira. Edozein arrazoi dela eta 6 euroko atxikipenarekin bueltatuko da, eskaera egiteko epea abuztuaren 1ean amaituko da. Data hau ondoren ziurtagiri medikuarekin bakarrik onartuko dira bajak. Epea abuztuaren 10ean amaituko da.

Informazio gehiago: www.cdfortunake.com, igeriketa@cdfortunake.com eta Pio Baroja kiroldegian 943214900

Denbora muga: 1h eta 30tako izango da. Denbora hori gaintzen duten igerilariek erretiratu egiten direla onartzen dute.

SAILKAPENA ETA GARAIURRAK:

Sailkapen orokorra eta kategoria eta sexuaren arabeko sailkapenak egingo dira.

Pío Baroja, 47 20008 Donostia San Sebastián • Gipuzkoa
T.: 943 214 900 F.: 943 217 177
fortuna@cdfortunake.com



FORTUNA
kirol elkarte
club deportivo

Paseo Berriko igerialdia irabazten duten emakumeak eta gizonezkoak TXAPEL bana eramango dute.

KATEGORIAK:

- A Kategoría (Beteranoak): 55 edo urte gehiago.
 - A1 azpikategoria: 65 edo urte gehiago
 - A2 azpikategoria: 55 eta 64 urte artekoak
- B Kategoría (Master+): 45 eta 54 urte artekoak.
- C kategoría (Masterrak): 35 eta 44 urte artekoak.
- D Kategoría (Seniorrak): 15 eta 34 urte artekoak.
- E Kategoría (Infantilak): 11 eta 14 urte artekoak.

Kategoria eta azpikategoria ezberdinetarako azaldutako adinak, lehiaketa burutzen den urtearen abenduaren 31ean betetakoa bezala onartuko da.

Parte-hartzaile guztiek probako orogarri bat jasoko dute. Garaikurren banaketa 13:30tatik aurrera izango da Donostiako Kontxa pasealekuan, erlojuen ondoan.

Igerialdia Gipuzkoako distantzia luzeko Ligaren araudi orokorraren arabera zuzenduta dago.